

## Garizumako 1. Igandea (A)

### EBANJELIOA

*Jesusek berrogei egun berau egiten du eta tentatua izaten da.*

#### **+ Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoen liburutik 4, 1-11**

Orduan, Espirituak basamortura eraman zuen Jesus, deabruak tenta zezan.

Berrogei gau eta berrogei egunez egon zen han, barau eginez, eta azkenik gosetu egin zen.

Hurbildu zitzaion, orduan, tentatzailea eta esan zion:

–Jainkoaren Semea zarenez, agindu harri hauek ogi bihurtzeko.

Jesusek erantzun zion:

–Liburu Santuetan idatzia dago: *Gizakia ez da ogiz bakarrik bizi, baizik Jainkoak esaten duenetik bizi da.*

Ondoren, deabruak hiri santura, Jerusalemara, eraman zuen eta, tenpluaren goreneko ertzera jasorik, esan zion:

–Jainkoaren Semea zarenez, bota zeure burua behera, idatzia baitago: *Bere aingeruei aginduko die zu zaintzeko. Eta besoetan eramango zaituzte, harriekin estropezu egin ez dezazun.*

Baina Jesusek erantzun:

–Hau ere idatzia dago: *Ez tentatu Jauna, zeure Jainkoa.*

Berrito, deabruak hartu eta mendi garai batera eraman zuen; munduko erreinu guztiak beren handi-ederrean erakutsi eta esan zion:

–Hori guztia emango dizut, ahuspezturik gurtzen banauzu.

Jesusek, orduan:

–Alde hemendik, Satanas! Idatzia baitago: *Adoratu Jauna, zeure Jainkoa, eta bera bakarrik gurtu.*

Orduan, deabruak utzi egin zuen, eta aingeruak etorri zitzaizkion zerbitzatzerara.

Jaunak esana.

### HOMILIA

**2017ko martxoaren 5a**

## **GURE TENTAZIO HANDIA**

«Jesusen tentazioen» kontakizuna ez genuke hartu behar arin-arin. Hor deskribatzen diren tentazioak ez dira ikuspegi moralekoak. Kontakizunak ohartarazten digu geure bizitza hondatu dezakegula, baldin eta Jesusek hartu duen bidetik desbideratzen bagara.

Lehenengo tentazioa joan-etorri erabakitzailekoa da; izan ere, errotik makurtu eta usteldu baitezake gure bizitza. Itxuraz, Jesusi gauza xume eta on bat aurkeztu diote: Jainkoa gosearen zerbitzura jartzea. «Jainkoaren Semea bazara, agindu ezazu harri hauek ogi bihur daitezela».

Alabaina, bat-batean eta era harrigarrian erantzun du Jesusek: «Gizakia ez da ogitik bakarrik bizi, baizik eta Jainkoari ahoari darion hitz orotatik». Bere ogia ez du bihurtu nahi gauza absolutu. Ez du egin nahi Jainkoa bere probetxuaren zerbitzari, Aitaren egitasmoaz ahazturik. Lehenik eta behin Jainkoaren erregetza eta haren zuzentasuna bilatu nahi ditu. Aitaren hitza entzungo du beti.

Gure premiak ez dira asetzen ogia segurtatze hutsaz. Askoz gehiago behar eta desiratzen du gizakiak. Ogirik ez dutenak gosetik eta miseriatik ateratzeko ere, Jainkoari, geure Aitari, entzun beharra dugu, eta geure bihotzean zuzentasunaren, errukiaren eta solidaritatearen ustea esnatu beharra.

Geure tentazio handia gaur egun, gauza guztiak ogi bihurtu nahi dugu. Gero eta maila handiagoan, geure bizitzaren ikusmira murriztea eta mugatzea, geure desioak asetze hutsera; geure bizitzako ideal kasik bakartzat, gero eta neurri handiagoan, ongizate baten eta bereizi gabeko kontsumismo baten obsesioa jartzea.

Geure burua engainatuko dugu, baldin eta pentsatzen badugu hori dela egin beharreko bidea aurrerapena eta askatasuna lortzeko. Ez al gara ikusten ari, jendea mugarik gabeko kontsumismora eta auto-asebetera lerratzen duen gizarte batek ez duela ezer egiten, baizik jendeagan hustasuna eta zentzurik eza sortu eta, bizikidetasunari dagokionez, egoismoa, solidaritaterik eza eta erantzukizunik eza eragin?

Zer dela-eta larritzen gara entzutean, egunero bere buruaz beste egiten duen jende-kopurua era tragikoan ari dela handitzen? Zer dela-eta jarraitzen dugu geure sasi-ongizatean hesiturik, gero eta hesi ez-gizakoiagoak ezartzen, gose direnak gure lurraldean sar ez daitezen, gure bizilekura irits ez daitezen, gure atea jo ez dezaten?

Jesusen deiak lagundu gaitzake jabetzen ezen gizakia ez dela ongizateaz bakarrik bizi. Beharrezkoa du pertsona batek espiritua lantzea, maitasuna eta adiskidetasuna bizitzea, sufritzen ari direnekin solidaritatea garatzea, norberaren kontzientziari erantzukizunez entzutea, biziaren azken Misterioari bihotza esperantzaz irekitzea.

***José Antonio Pagola***  
***Itzultzailea: Dionisio Amundarain***

## **HOMILIA**

**2014ko martxoaren 9a**

### **GURE TENTAZIO HANDIA**

(2016-2017ko A zikloaren homilia ikusi).

*José Antonio Pagola*  
*Itzultzailea: Dionisio Amundarain*

## **HOMILIA**

**2011ko martxoaren 13a**

### **TENTAZIOAK**

Jesusi ez zitzaion batere eroso gertatu Aitagandik hartua zuen egitekoari leial eustea, haren gogotik baztertu gabe. Ebanjelioek gogora dakarkigute bizi izan zuen barne borroka; baita gainditu behar izan zituen probak ere, ikasleen inguruan, bere bizitza osoan.

Lege-maisuek galdera maltzurrez eraso zioten, hura ordenu eraikira menderatu gogoz, larunbatean ere sendatzera eragiten zion Espiritua alde batera utziz. Fariseuk eskatzen zioten uzteko jendearen sufrimena arintzeari eta egiteko zerbait handiosik, «zerutiko seinale bat», Jainkoak harekin guztien aurrean baietsi zezan.

Maiteen zituen ikasleek bere ere tentatu zuten. Santiagok eta Joanek azkeneko zirenez ahazteko eskatu zioten, eta kontuan hartzeko gehiago haientzat ohore- eta botere-postuak gordetzea. Pedrok ere aurka egin zion bizitza arriskuan jarri eta hila izatea ekartzen ahal ziolako.

Jesusek sufritzen zuen eta ikasleek ere bai. Ezer ez zen erraz eta argi. Guztiek behar zuten saiatu Aitaren nahia betetzen, askotariko probak eta tentazioak gaindituz. Tenpluko segurtasun-indarrek atxilotu aurretik, esan zien Jesusek: «Zuek zarete probaldian nire ondoan eutsi diozuenak» (Lukas 22,28).

Jesusek bizitza osoan gainditu behar izandako tentazioak biltzen eta laburtzen ditu «Jesusen tentazioak» izeneko pasadizoak. Jordanen hartua zuen Espirituaren eraginpean bizi bazen ere, ezerk ez zion kentzen mesianismoaren sasi-formen lilura izatea.

Bere interesa hartu behar ote du kontuan, hala Aitaren nahia? Mesias baten boterea ezarri behar ote du, ala premia dutenen zerbitzura jarri? Bere aintza propioa bilatu behar

ote du, ala sufritzen dutenez Aitak duen errukia agertu? Arriskuari iskintxo egin eta gurutzea saihestu behar ote du, ala bere egitekoa bete Aitagan konfiantza ezarriz?

Jesusen tentazioen kontakizuna ikasleak erne jartzeko idatzi zen. Azti bizi behar dugu. Jesusen Espiritua bizirik da Elizan, baina kristauok ez gara libre geure nortasuna behin eta berriz desitxuratzetik, tentazio askori amore emanez.

Elizaren eta hierarkiaren, kristauen eta elkarten tentazioak zein diren ikustea, Jesusek bezala halako haiek begi aurrean izatea, eta hark bezala halako haiei aurre egitea: horra lehenengo gauza Jesusi leial jarraitzeko. Bere tentazioak ikusten ez dituen Elizak laster asko desitxuratuko ditu bere nortasuna eta bere egitekoa. Ez ote zaigu horrelako zerbait gertatzen ari? Ez ote gara aztiago eta erneago bizi beharrean desleialtasunean ez erortzeko?

***José Antonio Pagola***  
***Itzultzailea: Dionisio Amundarain***

Blog: <https://homiliaspagola.blogspot.com/>

José Antonio Pagola Itxaldiaren Bideoak ikusteko:  
<http://iglesiadesopelana3v.blogspot.com>